



## TREBAKUNTZA 2011/03: PUNTUAZIOA I (PUNTUA, BI PUNTUAK)

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* *Administrazio munduan erabat idatziak dauden dokumentuak oso urriak dira, zenbait akta eta ordenantza, udalen arteko gutun batzuk eta abar.*
2. \* *Nor izan da hitza hartu duen azkeneko zinegotzia? Ez dakigu ziur.*
3. \* *Bilerara etorri ziren udal euskaltegikoak, AEK-koak, ikastetxeak...*
4. \* *Hauxe izan zen zinegotziaren erantzuna: "gure alderdiak ez du mozio hau bere horretan onartuko".*
5. \* *Leontzio jauna, Gutun honen bidez, lehengoan esandako...*

### ZUZENKETAK ETA AZALPENA

#### PUNTUA:

Puntuak esaldiaren azkena markatzen du. Pausa osoa adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da:

- **Zentzu osoa duen periodoaren bukaeran.** Paragrafoaren amaiera markatzen duenean, puntu eta aparte egiten da.

Ad.: *Unibertsitateko administrazio-langileen artean euskara erabiltzen duten euskaldunek ere, askotan, ez dute inprimakiak ere euskaraz betetzeko ohiturarik.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



*Denok gaude ezjakin samar arlo honetan. Ez dago, beraz, argudio sakonen bila ibili beharrik esparru honetara erabilera hedatzeko premia larria dagoela justifikatzeko.*

- **Laburduretan:** ezk., esk. eta abar. Baina ez kontzeptu, magnitude, unitateak eta abar adierazteko jartzen diren ikurretan (ikus laburduren fitxa): m, kg...

- **Zenbakien ondoren,** "-garren"-en orde.

*Ad.: Iturribide kaleko 6.ean dago Kultur Etxea.*

- **Etendura puntuan ondoren, ez idatzi punturik:**

*Ad.: Hauek dira gure diru-iturri nagusiak: Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Aldundia, enpresa pribatuak...*

## **BI PUNTUAK:**

Bi puntuak ere pausaldi luzea adierazten dute. Honako kasuetan erabiltzen da, batik bat:

- **Ondorengoa aurrekoaren argibide edo adibide dela adierazteko.**

*Ad.: Bazkide berriei datuak eskatzen zaizkie aldizkaria jasotzeko: izen-abizenak, helbidea, NAN zenbakia...*

- **Norbaiten edo nonbaiteko hitzak bere horretan testura ekartzen direnean. Kasu honetan, larriz idatzi behar da esaldiaren hasiera.**

*Ad.: Honela dio araudiak: "Ikaslearen orde besterik beste norbaitek egingo balu azterketa, ikasle hori ezgai izango litzateke asignatura ebaluatzean".*

- **Orduetan.**

*Ad.: 1. mailako ikasleentzako ordutegi berria hau da: 08:15etik 14:15 arte.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)



Beraz:

1. Administrazio munduan erabat idatziak dauden dokumentuak oso urriak dira; zenbait akta eta ordenantza, udalen arteko gutun batzuk eta abar.
2. Nor izan da hitza hartu duen azkeneko zinegotzia? Ez dakigu ziur.
3. Bilerara etorri ziren udal euskaltegikoak, AEK-koak, ikastetxeak...
4. Hauxe izan zen zinegotziaren erantzuna: “**Gure** alderdiak ez du mozio hau bere horretan onartuko”.
5. Leontzio jauna:  
Gutun honen bidez, lehengoan esandako...

\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: [gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org) (Imanol) eta [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95  
[bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org)

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72  
[gipuzkoa2@uema.org](mailto:gipuzkoa2@uema.org)